



Nola hazi zen mundua

Yolanda Arrieta
IRRIMARRA ilustrazioa

Nola hazi zen mundua

i r u d i a k :

I R R I M A R R A i l u s t r a z i o a

i p u i n a :

Y o l a n d a A r r i e t a

i t u r r i a :

J o s u Z a b a l e t a

Z e n b a i t i p u i n h e r r i k o i



BOOKTEGI

Euskal literatura denon eskura

booktegi.eus



Hasieran, mundua txikia zen, gu haurtzaroan izaten garen bezalaxe. Baina mundua txikia zenean, oraindik ez zegoen, ez haurrik, ez gurasorik, ez irakaslerik, ez gidaririk, ez dendaririk, ez medikurik, ez baserri-tarrik, ez behirik, ez oilorik, ez katurik, ez txakurrik... Ezer ere ez.



Mundua txikia zenean, ez zitzaion titirik eman behar haur jaioberriarri, gurasoak ez ziren lanera joaten, irakasleek ez zuten eskolarik ematen, gidariek ez zeukaten zertan autorik gidatu, ez dendariek ezer saldu, ez medikuek inor sendatu, ez baserritarrek behiak larrera atera, ez oiloei jaten eman, ez katurik laztandu, ez txakurrik paseatu...

Mundua txikia zenean, ez zen ezertxo ere egin behar, mundua librea eta basatia zelako.

Ehunka, milaka, milioika urte igaro zuen munduak txiki, libre eta basati izaten, harik eta lehen gizakia agertu zen arte.

—Itxura ederra dauka honek —esan zuen hark, inguruetara begira.





Ibilian-ibilian, gauza guztiak arretaz behatzen hasi zen.

—Zer ederra intxaurrondoa, intxaur goxoekin.

Bi ale elkarren aurka kraskatu, eta oskola kendu ondoren, barruko fruitua jan zuen.



—Ideia bikaina behiena eta oiloena! Esnea eta arrautzak emateaz gain, jan ere egin daitezke...

Behiaren errapetik esnea edan ondoren, oiloaren ipurdipera luzatu zuen eskua.

Arrautza egin berria lurraren kontra kaskatu, eta zurrust edan zituen barruko zuringo eta gorringoa.

—Miau! —esanez hurbildu zitzaion katua oinetara.

Gizakiak besoetan hartu eta laztandu egin zuen:

—Pitxitxi deituko dizut. Gustatzen? Katuak begiak itxi zituen baietzaren seinale.



Handik gutxira, zaunka egin zion txakurrak, parean jarrita.

—Lagunak izan gaitezen gura duzu, ezta?
Txakurrak zaunka egiteari utzi eta gizakiari jarraitu zion atzetik,
tipi-tapa.





Bat-batean, gizakiak bera bezalako bat aurkitu zuen bidean.

—Nor zara?

—Zure laguna.

Bi lagunek baserria eraiki zuten intxaurrondoaren ondoan, eta bertan jarri ziren bizitzen, behi, oilo, katu eta txakurrarekin batera. Haurtxo bat izan zuten.

—Orain familia bat gara.



Hasieran, titia eman zioten haurrari; ondoren, behiaren esnea; azkenik, arrautza-tortilla. Katuak miau esaten irakatsi zion txikiari, eta txakurrak zaunka egiten. Gurasoek hizketan irakatsi zioten, eta haurrak bere kabuz ikasi zuen oinez, korrika eta dantzan.

Denborarekin, abere gehiago agertu zen. Oiloak oilarra ezagutu, eta txitak izan zituzten. Txakurrak, beste txakur batekin, kumeak. Katuak ere zeharo ugaritu ziren.

Gau batean, aldaba jo zuten.

—Nor da?

—Etxe bila dabilen familia bat.

Elurteak lekuz aldatzera behartuta zetozen,
toki epelagoetara.





Asko zirenez, etxe berria egin zuten guztien artean. Gero, bata besteari trukean gauzak ematen hasi ziren.

Haurrak handitzean, eskola handiagotara bidali zituzten. Auto-busak eraiki eta gidariak eratu zituzten horretarako. Gaixoak sendatu zituzten medikuen aholkuei jarraituz. Besteen berri izaten ikasi zuten irakasleen laguntzarekin, eta garaiak, lagunak eta bizimoduak gogoan hartzen, ipuin-kontalari eta idazleei esker.

Horrela, apurka-apurka, urteak joan eta urteak etorri, mundua hazi egin zen.

Eta hazten-hazten-hazten jarraitu zuen...





BOOKTEGI

Euskal literatura denon eskura

booktegi.eus